

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

##### Osasun Publikoaren Zerbitzua

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko abenduaren 1ean hartutako erabakiaren laburpena: arlo sanitarioko irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakunde pribatuei 2024an dirulaguntzak emateko deialdi publikoaren oinarriak onesten ditu horrek**

BDNS (Identif.): 738796.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/738796>).

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko abenduaren 1ean hartutako erabakiaren laburpena: arlo sanitarioko irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakunde pribatuei 2024an dirulaguntzak emateko deialdi publikoaren oinarriak onesten ditu horrek.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

#### **Lehena. Onuradunak**

Arlo sanitarioko irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakunde pribatuak, beren estatutuetako helburuen artean berariaz aitortzen badute gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko edo gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak egitea. Vitoria-Gasteizko biztanleria da jarduera-eremua.

#### **Bigarrena. Helburua**

Irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio eta entitateen proiektuak laguntzea da deialdiaren helburua, gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuak egiteko, beti ere Vitoria-Gasteizko biztanleei zuzenduta badaude.

#### **Hirugarrena. Deialdiaren oinarriak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko abenduaren 1eko erabakiaren bidez onetsiak.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

442.102,87 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

20 egun balioudun, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko abenduaren 18an

*Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko  
Osasun Publikoaren Zerbitzuko burua  
ANA BAZTERRICA*